

# TURISMOA MERKATURATZEKO ETA SUSTATZEKO LAGUNTZAK

AGINDUA, 2021eko apirilaren 29koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuarena, turismoa merkaturatzeko eta sustatzeko 2021. Urteko laguntzen (CTP programa) deialdia egiten duena 2021. ekitaldirako.

<b>H</b> elburua	Agindu honen xedea da turismo-jarduera berriz sustatzeko laguntzak arautzea eta haietarako deialdia egitea. Xede hori betetzeko, Euskadiko turismo-produktuak diseinatzeko, martxan jartzeko, sustatzeko eta merkaturatzeko laguntzak ematea.
<b>O</b> nuradunak	- Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak (ETEak) edo horien arteko elkarteak, zerbitzu turistikoak eskaintzen dituztenak edo sektore turistikoan eragina dutenak. - Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko jarduketak egiten dituzten elkarteak, fundazioak eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak.
<b>D</b> iruz lagunduko diren ekintzak	1. Diruz lagundu daitezke 2021eko ekitaldian proiektu tipologia hauek garatzeko egiten diren jarduketak: a) EAEn garatzen diren turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzea (I. eranskinean zehazten da nolako ezaugarriak izan behar dituzten produktu horiek). b) Euskadin egindako kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzea, baldin eta Espainian eta nazioartean proiektzioa badute eta Euskadiren irudia eta turismo-posizionamendua sendotzen laguntzen badute (II. eranskinean zehazten da nolako ezaugarriak izan behar dituzten produktu horiek). 2. Erakunde eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra eta proiektu tipologia bakarra aurkeztu ahal izango du.
<b>L</b> aguntzen zenbatekoa	Laguntzaren zenbatekoa lortutako puntuazioaren arabera izango da: 1.- EAEn garatzen diren turismo-produktuak sortzen, martxan jartzen, sustatzen eta merkaturatzen laguntzeko proiektuetarako (I. eranskinean jasotzen dira) gehieneko dirulaguntza onartutako gastuaren % 60 izango da, eta, gehienez ere, 20.000 euro erakunde onuradun bakoitzeko. Lurralde historiko batean edo Euskal Autonomia Erkidego osoan jarduten duten turismoko enpresa-elkarteen kasuan, 40.000 euro izango da gehieneko zenbatekoa. 2.- Euskadin egindako eta Espainian eta nazioartean proiektzioa duten kultura-, gastronomia- eta kirol-ekitaldiei laguntzeko proiektuetarako (II. eranskinean jasotzen dira) gehieneko dirulaguntza onartutako gastuaren % 50 izango da, eta, gehienez ere, 15.000 euro erakunde onuradun bakoitzeko. Baldin eta egiaztatzen bada bidaia-agentzia batekin lankidetzak-akordio bat dagoela proiektua merkaturatzeko, 25.000 euro izango da gehieneko zenbatekoa.
<b>A</b> urkezteko epea	Aurkezteko azken eguna 2021eko ekainaren 11a
<b>B</b> ateragarritasuna	Bateragarria da beste erakunde edo organismo batzuek emandako diru-laguntzekin
<b>I</b> nformazio gehiago	LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 603 41 11 turismo@leartibai.com